

noaia



**Bizikletentzako
aparkaleku estaliak
Santuenean
eta Atxegalden**

**Energia
berriztagarrien
inguruko kooperatiba
bat osatzear da**



Sugarra berriz su bihurtzeko deia

ORIANTE BHI

BI ERAIKIN, INSTITUTU BAT!

BATXILERGOKO-ko IKASLEEN ONARPENA 23-24
MARTXOAREN 27-tik APIRILAREN 21-era



Landaberri eraikina DBH 1-2
Pintore 2,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 94



Larrekoetxe eraikina DBH 3-4 eta Batxilergoa
Buenos Aires aldapa 1,
20160 Lasarte-Oria
943 89 94 92

ATE IREKIAK

Martxoaren 22an (17:30-18:30)
Larrekoetxe eraikinean



www.oriarte.eus

12-18 urte
DBH-Batxilergoa
Jungela zerbitzua
Euskal kultura eta
kulturartekotasuna bultzatuz

MARTXOAK 19, IGANDEA

18:30 SUTEGIN

20
URTE

Laburbira

Euskarazko film laburren XX.zirkuitoa - 2023

SARRERA DOAN



OLATUEN ISILTASUNA



MUSKIL



KOADRO GORIARI HELDU



IRRITS



ASKO FALTA DA?



ERLOJUPEKOA



HITZAK



noova

Albisteak iruditan

Urbil, 'Pauso Berriak' programarekin bat

A tzegi eta Gureak dira 'Pauso Berriak' programaren sustatzaile nagusiak. Era honetan, adimen-desgaitasuna duten pertsonen lan merkatuan txertatzen laguntzen diete. Urbil merkataritza-gunea ekimen honen kolaboratzaile zaharrenetako bat da.

Aurreko astean, beste urtebetez berritu zen Urbil, Atzegi eta Gureak-en arteko lan-kidetza-hitzarmena. Honi esker, Oscar Guinaldok Urbilen segiko du lanean. "Oscar langile handia izateaz gain, Urbilgo giza taldeko kide da". Hamahiru urte egin ditu Urbilen eta "lan handia egiten du garbiketa alorrean", Urbilgo komunikazio bulegotik azaldu digutenez.

Sinadura ekitaldian, Gureak-eko arduradun diren Bakartxo Bandresen eta Susana Pastoren hartu zuten parte. Euren esanetan, Oscarrek egunero egiten duen lanari esker "aktibo mantentzen da eta hazten jarraitzen laguntzen dio. Asko es-



Atzegi, Gureak eta Urbilen arteko hitzarmenari esker, Oscar Guinaldok beste urtebetez jarraituko du Urbilen lanean.

kertzen dugu Urbil merkataritza-gunearen eta bere talde osoaren inplikazioa".

Leyre Lobato Urbilgo gerentearen esanetan, horrelako programek denei egiten

die mesede: "pertsonen gaitasunetan sinesten dugulako. Horregatik, haien beharretara egokitutako aukerak ere sortzen ditugu Urbilen".

Laburrean

NOAUA!rako oharrak astelehenerako igorri

Datozen martxoaren 24 eta 31ko aldizkariak astelehenetan eramango ditugu inprentara. Honenbestez, oharrak baldin baduzue, aurreko ostirala baino lehen helarazi bideotatik: erredakzioa@noaua.eus / 943 360 321.

Sagarrondotik Sagardora, Aitor Etxeandiarekin

Ikastaroak ostiral honetan izango du jarraipena, 15:30-18:30 artean Potxoenean. "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak" hartuko dituzte hizpide. Izen-ematea aurrez usurbilkultura.eus edo alkartasuna.eus bidez.

Errenta aitortzeko datak iragarri ditu Aldundiak

Iazko errenta aitortzeko datak finkatu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Autolikidazio proposamenak onartzeko epea adibidez, apirilaren 3an zabalduko da. Informazio gehiago gipuzkoa.eus web orrialdean eskura daiteke.

noaua

Kultur Elkarte
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 // elkartea@noaua.eus // www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Pasa da aurtengo martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, kaleak morez tindatu diren eguna. Aldarrikapen ugarirekin egin dira manifestazioak eta bilkurak, hainbat injustizia amaitzeko eskatuz: arlo intimoko biolentzia, lan arloko desberdintasunak, botere guneetan ordezkaririk ez izatea eta beste zenbait.

Euskal Herriko mugimendu feministaren ardatz nagusietako bat zaintzarako eskubide kolektiboa izan da eta greba orokor baterako prozesua abiatuko du zaintza eskubidearen alde. Denon biziak erdigunean izena jarri diote prozesuari, eta zaintzak irauli eta erdigunean jarri nahi dira dena aldatzeko.

Gaur egungo gizarteak duen erronka nagusietako bat da -nagusiena ez bada zaintzaren afera; zaintzeko eskubidea eta zainduak izateko eskubidea. Ezinbestean erdigunean jarri behar dena. Baina, zer da erdigunean jartzea? Ba al dakigu zer esan nahi duen gero eta gehiago entzuten dugun erdigune horrek? Esango nuke erdigunea logomakia bihurtzen ari dela, hau da, behin eta berriz erabiltzen da hitza, hitzari garrantzia emanez, baina mamiari heldu gabe. Horixe ari da gertatzen erdigunea hitzarekin, beste

Erdigunea logomakia izan ez dadin



“Usurbilen ere martxoaren 8an zaintza erdigunean jartzeko aldarrikapena egin zen”.

AINHOA AZPIROTZ

“Esango nuke ‘erdigunea’ logomakia bihurtzen ari dela, hau da, behin eta berriz erabiltzen da hitza, hitzari garrantzia emanez, baina mamiari heldu gabe”

hainbat hitzekin bezala: inklusioa, demokrazia, jasangarritasuna...

Horrexegatik, hurrengo erronka logomakia izateari uztea da, zaintza erdigunean esatetik hori definitzera, zehaztera eta gauzatzea pasatzea. Badakigu zaintza merkantilizatuta dagoela, milaka emakume esplotazio egoeran ari direla lanean, zainduak izateko eskubidea unibertsala dela, jendeak behar dituen zaintza orduak eduki behar dituela, zaintza lan orok errekonozitua izan

behar duela...

Baina nola gauzatzen da hori dena egunerokoa eta norberaren etxean? Nola konkretatzen da? Nola kolektibizatzen da? Horretan dago lana eta horrek mugitzen ditu gure barruak eta aldatzen gure aurpegiko koloreak. Galdera zuzenei erantzuteko unea da.

Esate baterako, martxoaren 5ean Berria egunkarian Silvia Carrizo eta Jessica Guzman etxeko langile izandakoek kaze-tariari egiten zioten galderari: “Zaintzaren gaiari ez bazaio erreparatzen orain, krisi galanta dator. Ez dugu migratzaileok izango, zuek izango duzue... Zergatik? Oraingo pentsioak ez dira izango etorkizunekoak; etorkizuneko pentsioak apalagoak izango dira, krisi asko izan dituzuelako... Orain pentsiodun batek, nola edo hala, langile egoiliar bat pagatzeko modua badu ere, gero ez da

egongo horrelakorik. Eta migratzaileak, lanik ez badago, ez datoz. Zer egingo duzue?”.

Karmele Mitxelena idazleak Haragizko mamuak liburuan beste egoera hau planteatzen du: “Aliciak, goizetako zaintzaileak, ateratzen du astelehenetik ostiralera, berak ere behar beste gogo eta indar ez duen arren; go-goak eta indarrak ordaintzen dizkiogu. Arratsaldeak eta asteburuak hiru anai-arreboren artean banatzen ditugu. Nire buruak nazka ematen dit larunbat arratsaldeak edo igande eguerdiak zotz egin behar izaten ditugunean hiruroi gaizki datozkigulako. Seme-alaba higuigarriak gara. Amarekin sofán eseri eta denbora alferrik galdua-ren sentipenak barrutik jaten gaitu esku pilotako partidari begira. Ez da justua, badakit. Ahalegintzen naiz sentitzen dudana ez sentitzen, baina ezin dut, ez dakit nola ez sentitu, ez dakit nola egiten den hori”. Aurreko astean Alazne Arrutik zioen bezala, “inguruan dauzkadanak zaintzeko ahaleginak egiten nabil eta aurrera begira, jaso dudana besteko tratua eskaini nahiko nieke maite ditudanei. Baina batzuetan, egoerak ez dira nahi bezain arrunt edo errazak”.

Adibide gehiago aurkituko ditugu egunerokotasunera jaitzita, eta hortik abiatuta asmatu beharko dira erantzunak.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
barkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

© 943 362725
© 688 690 361

Bizikletentzako aparkaleku estaliak



Santuenean, frontoiaren ondoan jarriko dute aparkaleku bat (ezkerreko irudian). Eta Atxegalden, Ariztitxo 4 eta Beko kale 2 etxebizitzaren atzekaldean.

Udalak bizikletentzako bi aparkaleku estali ezarriko ditu datozen egunetan: bat, Santuenean, frontoi ondoan; eta bestea, Atxegaldeko Beko kalean. Era honetan, mugikortasun eredu jasangarrietan sakontzen segi nahi du.

Santuenean, frontoiaren ondoan jarriko dute aparkaleku

UDALA

“Ondo funtzionatzen badute, herrian zehar gehiago jartzeko aukera aztertuko dugu”

bat. Eta Atxegalden, Ariztitxo 4 eta Beko kale 2 etxebizitzaren atzeko aldean. “Biak ere

auzotarrek egindako eskaerei erantzuten diete”, udal iturriek aditzera eman dutenez. Ondo funtzionatzen badute, gehiago jartzeko aukera aztertuko dutela adierazi dute udaletxetik.

Bizikleten erabilera errazten duten azpiegiturak hobetzeko hartutako neurria da hau, “egunerokoan bizikleta apar-

katzea erraza eta segurua izan dadin”. Helburu horrekin bat egiten du kiroldegi atzean bizikletak garbitzeko ipini zen gune irekiak. Urrats hauen ondoren beste batzuk etorriko direla ondorioztatu daiteke, “Udalaren asmoa baita, pixkanaka, aparkaleku eta bizikleta bide seguruak hedatzea”.

Ika-mika

Oposizio azterketak euskaraz

Oposizio garaia da EAEn. Osakidetzan inoiz eskaini diren plaza kopuru handiena ekarriko duen lan eskaintza publikoan izena emateko aukera dago oraindik. Baina betiko arazoarekin gatoz, euskaldunok euskaraz egin ahal izango ditugu azterketa hauek?

Bada, euskaldunok eskubide osoa daukagu lan eskaintza publiko edo oposizioetan azterketak euskaraz egin ahal izateko, noski. Baina berdintasun egoeran aurkeztu da euskaraz azterketa egin nahi duena eta gaztelaniaz egin nahi duen pertsona? Argi dago ezetz.

Oinarrietan arakatzeko hasi eta eskaintzen diren ehun lanpostu kategorietako gaiter-

gien artean, zenbaterik daukate euskara hutsean bibliografia eskuratzeko aukera? Bada, ausartuko nintzateke esaten batere ere ez duela aukera hori. Legeren bat ez bada, material espezifikoak euskaraz eskuratzeko ezintasunak beti daude mahai gainean. Egoera hau izanda, zeini ez zaio gertatu, azterketara iritsi eta jendea betetako BEC batean euskaraz azterketa nork egingo duen galdetu eta milaka hautagaien artean lauzpabost esku ausart bakarrik altxatuta ikustea?

Egoera ez da batere ona, eta administrazioek hausnartu beharko lukete zergatik garen hain pertsona gutxi oposizioen azterketak euskaraz egiten ditugunak...

Egoera honi buelta emateko

eta kontuan izanda Bai Euskarari Elkartearen helburua lan munduan euskararen erabilerran areagotzeko eragitea dela, oposizioak euskaraz egin nahi dituzten pertsonen ahalik eta erosoena aritzeko tresna eta bitartekoak eskaini nahi dizkiegu.

Horretarako, Bai Euskarari Elkartek kudeatzen duen Lansarean lan-atarian oposizioetarako material biltegia eta galdetegiaren moduluak martxan jarri ditugu. Oposizioegileek euskarazko materiala modu errazean eskuragarri izan dezazuten eta sortuta dauden galdetegiaren bitartez trebatu. Honi laguntzeko Oposizioak euskaraz Telegram kanala jarri dugu martxan, material eta galdetegiaren aurkibide

moduan erabiliko dugu eta komentarioen bitartez ekarpenak egin ahal izango dituzue.

Guk tresnak jarri ditugu eta ahal dugun heinean elikatzen joango gara. Hala ere, oposizioetan parte hartzen duzuen guztiei dei egiten dizuegu, alde batetik azterketak euskaraz egin ditzazuten eta bestetik guk sortutako tresnak elikatu eta auzolan handi baten bidez ahal beste material eta galdetegi sor ditzagun.

Ea hurrengo oposizioetan muga gutxiago eta euskarazko azterketa gehiago egiterik dugun! Animo eta zorte on guztioi!

Bergoi Madernaz del Pozo,
Bai Euskarari Elkarteko
aholkularia

DBH-ko ikasleak: “Gaurko eguna zure eskubide berak edukitzea aldarrikatzeko da”

Hala adierazi zuten Uda-
rregi ikastolako DBH-ko
ikasleek, Martxoaren
8aren harira herrian barrena
egin zuten manifestazioaren
amaieran plazaratu zuten adie-
razpenean. Honako “gutun ire-
kia” idatzi eta irakurri zuten,
“egun hau beharrezko ikusten
ez duzun horri” zuzendua. Se-
gidan duzue osorik.

Erakusleahoak

Ez dira Martxoaren 8 honi be-
gira ekimenik egin duten ikasle
bakarrak izan. LH-ko ikasleek,
“lanketa ederra egin dute eta
beraien lanak herriko erakusle-
hioetan ikusgai” jarri zituzten.
Xehetasunetan sartuta adierazi
zutenez, “jakin-minak eragin-
da, etorkizuna eraikitzen aritu



Martxoaren 8aren harira, Usurbilen barrena egin zuten manifestazioaren amaieran adierazpen bat irakurri zuten frontoian.

dira emakume asko historian
zehar. Bere indarra, ideia berriei
eta aurkikuntzei esker, gizartea
poliki-poliki eraldatzen joan da.

Ezagutzen al dituzue? Plazida
Otaño, Coco Chanel, Gertrude
Ederle, Junko Tabei,...”. Erakus-
leahoetan ikusgai jarritakoak.

M8 aldarrikapena

Gutun irekia egun hau beha-
rrezko ikusten ez duzun horri:
Gaurko eguna ez da emaku-
meok zu baino gehiago garela
adierazteko.

Gaurko eguna ez da zu sobe-
ran sentiarazteko egun bat.

Gaurko eguna ez da zu gorro-
tatzeko eguna.

Gaurko eguna zure eskubide
berak edukitzea aldarrikatzeko
da.

Gaurko eguna munduan bion-
tzat lekua dagoela esateko da.

Gaurko eguna berdintasuna-
ren behar hori azpimarratzeko
da.

Emakumeok geldirik bagaude
mundua geldirik dago, emaku-
meok aktibatzean mundua piz-
ten da. Zure eta nire mundua.

“Zaurgarriago sentiarazten gaituzten” hamabi leku identifikatu ditu Kafe Tertuliak

Udazkenean ze-
har bideratu zuten
prozesuaren baitan,
“emakumeen aurkako indar-
keria egoerak sortzeko arris-
kua handiagoa den kale eta
txokoak” identifikatzen aritu
ziren Kafe Tertulia Usurbilgo
neska* gazteen talde feminis-
ta eta haien ekimenara batu
ziren emakumeak. Lanketa
horren emaitza asteotan pla-
zaratu dute.



Galtzaragainatik anbulategi aldera igotzeko eskailerak.

“Eta zu, seguru sentitzen
al zara Usurbilgo kale guztie-
tan?”. Galdera hau abiapuntu
gisa hartuta, Kafe Tertulia
Usurbilgo neska* gazteen
talde feministak “argitasun
ezagatik, kalearen luzeeraga-
tik, irtenbiderik ez dagoelako
edo bestelako arrazoiengatik
emakumeen aurkako indar-
keria egoerak sortzeko arris-

kua handiagoa den kale eta
txokoak” identifikatzen aritu
dira hilabeteotan.

Guztira “zaurgarriago sen-
tiarazten gaituzten” hamabi
puntu seinالاتu dituzte Usur-
bilen. “Garrantzitsua da leku
hauek eraberritzetik zaurgarri-
tasun egoera hauei konponbi-
dea ematea, denok askata-

sunez erabili nahi ditugun
kaleak, denen segurtasuna ber-
matzen den modu justu batean
eraikiz”, zioten Kafe Tertuliako
kideek egitasmo hau abiarazi
zutenean.

Puntu guztiok seinالاتze-
ko arrazoiak ere plazaratu ditu
Kafe Tertuliak, herrian jarri di-
tuzten karteletan ikus dezake-

zuenez.

Identifikatutako puntuak

■ Kalezarko aldapa: ez dago
irtenbiderik, argiztapen falta.

■ Anbulategi ingurua: kotxe
asko, argi gutxi, irtenbiderik
ez.

■ Troiako aldapa eta Zubie-
tara joateko bidea: argiztapen
gutxi. Bakartua.

■ Gaztainaga eta Kiroldegia-
ren arteko aldapa: argiztapen
eta irtenbide gutxi. Laguntza
eskatzeko etxebizitza gutxi
inguruan.

■ San Esteban eta bertara
igotzeko aldapa: argiztapen
falta.

■ Kalezarko autobus gelto-
kitik auzora igotzeko bidea:
bakartua.

■ Tren geltokia eta San Este-
ban kalea: argi gutxi. Bakar-
tua.

Sugarra berriz su bihurtzeko deia

Belaunaldi ezberdinetako emakumeak elkartu ditu Mikel Laboa plazan aur-tengo Martxoaren 8ak “Emakumeak aktibatzean, mundua pizten da” aldarriaren bueltan hain zuzen.

Mobilizazio berezia izan zen iragan astekoa, ohiko elkarretaratzetik haratagokoa. Lurra lantzen eta etorkizunean fruitu berriak emango dituen haziak ereiteko ekintza sinbolikoa edo performance-a egin zuten. “Ereiten, elkartuz, komunitatetik eraginez jarraitzen dugu sugarra piztuta mantentzen, eta horrek ekarriko ditu exijitzen ditugun hobekuntzak, orain arte egin dugun eta historikoki egin duten lanari esker izan den bezala”, adierazi zuen Usurbilgo mugimendu feministak.

Orain dela unea adierazi zuten, lehen feministek piztu eta



“Heldu diezaiozun barruan pizten zaigun indar honi, elkarrekin saretu eta gure errealitateak hobetzen jarraitzeko”.

MARTXOAK 8

“Elkartuz, komunitatetik eraginez jarraitzen dugu sugarra piztuta mantentzen, eta horrek ekarriko ditu exijitzen ditugun hobekuntzak”

piztuta mantendutako sugarra “berriz ere su bihurtu dadin”.

“Baliabide oso potentia den etxe bat bidean daukagu”

Irekitzeaz duten Kalezarko Pelaioeneako Emakumeen Etxera begira jarri ziren. “Herrian emakume asko gaude interesez, gogoz. Baliabide oso potentia den etxe bat bidean daukagu”. Horregatik, aurreko urteetako ibilbideari eutsi berriz eta honako deia egin

diete emakumeei. “Heldu diezaiozun barruan pizten zaigun indar honi, elkarrekin saretu eta gure errealitateak hobetzen jarraitzeko”.

“Emakume izateak arrisku faktorea izaten segitzen du”

Beharra bada eta. Mugimendu feministak plazaratu zuten manifestuan urteotako ibilbideari eginiko errepasoan zehar nabarmendu zuten moduan, “garaiak aldatu dira, baina patriarkatuak modu berriak bilatu ditu beti, emakumeok menderatzen gaituen sistema hau sostengatu, justifikatu eta erreproduzitzeko. Gainera, geroz eta era sutilagoan ematen da zapalkuntza hau, gure errealitatea ikustaraztea zailduz. Baina, ikusi nahi ez duenak, genero indarkeria datuak begiratu besterik ez du, gaur egun oraindik emakume izatea arrisku faktorea dela egiaztatzen”.

Egon, partekatu, hausnartu eta harremantzeko etxea izango da Pelaioeneakoa

Bilgunea fisikoki eraikia eta irekierara begira dagoen honetan, bertako kide izango direnak edukiz janzten ari dira espazioa. Horretan dihardute eta horren lekuko izan zen martxoaren 4an, Potxoenean egin zuten asanblada ireki eta jendetsua. Martxoaren 8ra begirako lehen hitzordua izan zen. Bertan, Kalezarko Pelaioenea eraikinean kokatuko den Emakumeen Etxeak orain arte joratu duen bidea azaltzeaz gain, bertaratu ziren hamarnaka emakumeak egitasmo honen etorkizuna marrazten aritu ziren. Egon, partekatu, hausnartu, harremantzeko etxea izango da Pelaioeneakoa. Bilgunea finean.



Emakumeen Etxearen inguruko asanblada irekia egin zuten martxoaren 4an, Potxoenean.

Aste eta erdiko musika giroan murgiltzear

Zumarte Musika Eskolaren eskutik, hemeretzi-garren Soinurbil martxoaren 16tik 26ra.

19. Soinurbil

Martxoak 16, osteguna

■ 18:30 Zumarteko ikasleen kontzertua.

■ Tokia: Aginagako Eliza Zaharra.

■ Zehaztasunak: “Zumarte Usurbilgo Musika Eskolako talde instrumental desberdinek kontzertua eskainiko dute eta Orbeldi Dantza Taldeko kideak ere bertan izango dira emanaldian parte hartzen”.

Martxoak 18, larunbata

■ Orquesta Reusonicaren taiera eta kontzertua:

-11:00 Musika Eskolan.

-19:00 Frontoian. Izen-ematea doan, usurbilkultura.eus plataforman.

■ Artistak: Rocco Papia, Xavi Lozano, Antonio Sánchez Barranco.

■ Zehaztasunak: “Materialen berrerabilpen sortzailea, world-jazza eta musika tradizionala kontzeptu bakar eta liluragarri batean batzen dira. Ezohiko objektuekin musika



Martxoaren 20an, organo erakustaldia Salvatore elizan, 18:00etan hasita.

ORGANO KONTZERTUA

**“Martxoaren 23an
asteazkena, Pol Álvarez
i Vicianak organo
kontzertua eskainiko
du Salvatore elizan.
19:00etan hasiko da
emanaldia**

egiten esperientzia luzea duten hiru musikari biltzen dira musika sormena gainezka duen kontzertu batean. Kontzertu berria, auto-eraikitako instrumentuekin eginga. Topaketa bakarra eta desberdina, musikan, hondakinezko objektuak eta materialak sormenez berberabiltzeari buruz trebeziazko

ausardiaz sentsibilizatzea helburu duena”.

Martxoak 20, astelehena

■ 18:00/19:00 Organo erakustaldia Salvatore elizan.

■ Tokia: Salvatore Eliza.

Martxoak 21, asteartea

■ 18:00 “Kiliklon Txorotxaranga” kalean.

Martxoak 22, asteazkena

■ 19:00 Astigarragako musika eskolarekin trukaketa Sutegiko auditorioan.

Martxoak 23, osteguna

■ 19:00 Pol Álvarez i Vicianaren organo kontzertua Salbato-

re elizan.

■ Zehaztasunak: “14 urte zituenetik ari da kontzertista bakarlari gisa. Halaber, kontzertuak eman ditu laguntzaile gisa, bai Katalunian, bai nazioarteko jaialdietan. 2017az geroztik, Kirchenmusiker (organo jotzaile titularra eta koru zuzendaria) da Alt Heumaden elizan, Stuttgarten”.

Martxoak 24, ostirala

■ 18:30 Habia taldearen “Hiru hari, hiru ahots” emanaldia Sutegiko auditorioan.

■ Zehaztasunak: “Tradiziotik ateratako doinuak eta beraien sorkuntzakoak jotzen dituzte”. Sarrera: 5 euro, aurrez usurbilkultura.eus plataforman eskuragarri.

Martxoak 26, igandea

■ 12:15 Caparrosoko musika banda kalean.

■ 13:00 Kontzertua frontoian.

Antolatzaileak:

Zumarte Musika Eskola eta Usurbilgo Udala.

Laguntzaileak:

Salvatore Parrokia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxa.

Euripeko lehia Oriako jaitsieran

Euripean lehiatu ziren larunbat arratsaldean, errioan behera Oriako 29. Jaitsieran parte hartu zuten ontziak. Orio Arraun Elkarteak antolatutako proba, ohi bezala, Aginagatik abiatu zen.

Bi modalitateetan jokatu zen hitzordua. Lau kilometroko jaitsieran parte hartu zutenak Sarikolatik abiatu ziren, sei kilometroko luzeradun saiokoak Mapiletik. Lehia bizia izan zen.

Larunbateko proban 69



Larunbateko proban 69 talde lehiatu ziren. Tartean, beteranoen mailakoak.

talde lehiatu ziren; 9 Llagut Catala, 29 traineru beterano, emakumezkoen 10 traineru tal-

de eta beste 21 gizona zutenak.

29. edizioa heldu den ekimena hain zuzen, 1995ean hasi

zen antolatzen Orio Arraun Elkarteak, estropaden udako denboralditik haratago, “traineruetan parte hartzen duten arraunlarien prestakuntza fisikoa eta teknikoa urte gutxian zehar” lantzen zela ikusirik. Ordutik ia 30 urteotan, parte hartzaileen kopurua hazten joan da. “Euskal Herriko arraunlariez aparte, hemen izaten ditugu karniar-majoreroak, katalanak, valentziarrak, andaluziarrak, galizarrak, asturiarrak, kantabriarrak...”. Aurten ere bai.

Gidabaimena euskaraz ateratzeak saria ekar dezake Buruntzaldean

Gidabaimena euskaraz ateratzeko eragiten ari dira Buruntzaldeko udalak eta hainbat autoeskola 2010. urteaz geroztik. Ordutik 18 urtetik gorako 1.252 lagunek atera dute ibilgailuan joan etorriak egiteko baimena. 60 izan ziren iaz.

Prestakuntza saiook euskaraz egitea sustatzeko urtero zozketa egiten dute egitasmo honetako udal eta autoeskola parte hartzaileek. “Izan ere, gaur egun gazte gehienek D ereduan ikasiagatik, oraindik ere gehienek gaztelaniaren aldeko hautua egiten dute” eta. Saria, atal teorikora bideratu daitekeen diru kopurua izaten da, gehienez 400 euro. Aurten goa, berriki egin dute Potxoenean Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek eta egitasmoan parte hartu duten zazpi autoeskolak. Guztira bederatzia izan dira sarituak eskualde mailan. Herri bakoitzetik “gidabaimena euskaraz” izeneko proiektuan parte hartzen duten autoeskola adina saritu izan dira. Usurbilen bakarra duguenez, saritu bakarra izan da; Elorri Armendariz Tolosa.

Eskualdean erroldatuta egotea

Zozketan parte hartzeko beharrezkoa da eskualdeko sei udalerrietako batean erroldatuta egotea eta gidabaimenaren zati teorikoa euskaraz egin eta



Zozketa Potxoenean egin zen eta Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalak zein egitasmoan parte hartu duten zazpi autoeskolak elkartu ziren.

USURBILGO SARITUA

**“Usurbilgo
ikasleen artean,
Elorri Armendariz Tolosa
izan da saritua”**

gainditu izana, egitasmo honekin bat egin duen autoeskole-tako batean.

Euskararako jauzia

Argi denez, oraindik orain sektore honek guztiz euskalduntzeke segitzen du. Baina aurtengoan “berri pozgarri

bat izan dugu euskararen aldetik autoeskolaren munduan: Erreterriako Don Bosco ikastetxeak Goi Mailako ziklo bat eskaini du D ereduan autoeskolako irakasleak prestatzeko. Klase teorikoak eta praktikoak emateko aukera izango dute irakasle horiek. Buruntzaldeko udalek pozarren hartu dute albiste, uste baitute horri esker datorren urteetan zentro gehiagok eskaini ahal izango dutela zikloa, eta, honenbestez, gidabaimena euskaraz ateratzeko erraztasun handiagoak eman go direla”.

18 urteko gazteei gutun bana igorriko zaie

Bestalde, urtero moduan, maiatzean aurten 18 urte beteko dituzten Buruntzaldeko gazteei gutun bana bidaliko diete eskualdeko udalek, “euskaraz ateratzeak dituen aban-

tailen berri emanez eta hala egitera animatuz. Gazte askok uda parte aprobetxatzen dute gidabaimena ateratzeko; beren ikasketak euskaraz egin dituzten gazteak dira eta

ezinbestekoa da helduarorako urrats garrantzitsu eta erakargarri hori euskaraz eman ahal izatea. Hortik udalon inplikazioa eta autoeskolaren ahalegina”.

Sarituak eta parte hartu duten autoeskolak

Sarituak:

- Andoain: Mirene Iraola Trecu eta Jon Mugica Manso.
- Astigarraga: Danel Soraluze Arrizabal.
- Hernani: Eider Goikoe-txea Salazar, Garazi Sarriegi Apezetxea eta Manex Usarraga Vicent.
- Lasarte-Oria: Sara Etxeberria Zapiain.
- Urnieta: Ekain Etxeberria Zabala.
- Usurbil: Elorri Armendariz Tolosa.

Autoeskolak:

- Otamendi.
- Hernani.
- Lagunak.
- Bengoetxea.
- Mendi.
- Mugica.
- Solozabal.

EAJ-PNV: “Plan Orokor berriak usurbildarren arazoak eta beharrak alde batera uzten ditu”

Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) hasieraz onartu zen iazko urriaren 13ko ezohiko udalbatzarrean. Otsailaren 28ra arte egon zen jendaurrean eta epe horretan EAJk zortzi alegazio eta hainbat eskaera aurkeztu ditu. Tartean, hauxe: industria eta teknologiarako eremu berri bat sortzea Luzuriaga parean, N-636 eta GI-41 errepideen artean.

Eremu urbanistikoaren artean jarraipenik ez dagoela dio EAJk, eta Iartzako eremua jartzzen du adibide gisa: “irla bat osatu da, nahiz eta herrigunetik oso gertu egon”.

HAPOan Aginagarako jaso den proposameneari irregulartasun zantzuak egon daitezkeela iradokitzen du alderdi jeltzaleak: “Elutx eta Ezpaldi artean dagoen landa-lurra ez da urbanizagarria, haustura dakar eta zatituta geratzen da”.

Lurzoru urbanizagarrien premia

Etorkizuneko beharrei aurre egiteko inongo planifikaziorik ez dela salatzen du. “Hau garbi ikusten da herriguneari, Santueñan eta proposatutako industria guneetan”, dio EAJk.

Zubietaren kasuan, ekipamenduen arloan zehaztasunik ez dagoela dio. “Etxebizitza kolektiboak modu isolatuan ager-



Hiria Antolatzeko Plan Orokorren inguruan, Usurbilgo EAJ-PNV alderdiak zortzi alegazio aurkeztu ditu.

USURBILGO EAJ-PNV

“Plan berria lurzorua sailkatzeko eta antolatzeko tresna hutsa da, interes orokorrak eta kolektibitatearen arazoak zein beharrak alde batera utzita”

tzen dira, inguruarekin inongo loturarik gabe, Errota eta Errotabide kasu”. Honengatik guztia-gatik, “lurzoru urbanizagarriak zabaltzea eskatzen dugu, zentzuzko jarraikortasun batekin”.

Aparkalekuen falta

Lurzoru urbanizagarri gisa sailkatzen den azalera oso eskasa dela uste du alderdi jeltzaleak. “HAPOak datozen 20 urtee-

tako beharrei erantzun behar-ko dienez”, eremu bakoitzaren ezaugarrien arabera “tipologia desberdineko etxebizitzak erakitzeko aukera izatea eta etxebizitza kolektiboak planteatzen diren tokietan eraikigarritasuna gehitzea eskatzen dugu, lurzorua zentzuzko erabilera-ekin”. Era berean, aparkaleku faltaren aurrean planak ez duela erantzun argirik dio EAJk, “eta merkataritzaren beharrei erantzuteko aparkalekuak eraiki behar dira”.

Auzoen arteko komunikazioa

EAJk gabezia gehiago ikusi dizkio HAPOari. “Plan orokor honek ez du auzoen arteko komunikazioan konponbiderik eskaintzen”. Herrigunea ipa-

rraldera zabaltzen ari dela eta herrirako sarrera-irteera berri-rik ez dela aurreikusten dio. “Honen adibide da Ugartondoko eraikuntzaren ondorioz Troiako bideak jasaten duen trafikoa. Trazadura ez dago egokituta izan duen trafiko gehikuntzarako eta oinezkoak ere bertatik pasatzen dira. Bide berriak egiteko lur erreserba falta da”.

“Hirigintza garapen berriek sarbide berri bat eskatzen dute”

Halaber, Etxealdia auzoaren-tzak egin den planeamen-duarekin ez dator bat EAJ. “Ez du aprobetxatzen Kale Nagusiari jarraipena emateko dagoen aukera paregabea, auzoaren eta herriguneari lotura ahalbidetuz. Usurbilgo sarrera nagusia da eta utzikieriazko itxura du”. Txaramuntorekiko loturarik ez dela planteatzen dio EAJk. “Eta tokiko bide-segurtasuna nabarmen hobetzeaz gain, auzo osorako irisgarritasuna eta kalitatezko ekipamenduak eskaini behar-ko lirateke”.

Honekin guztiarekin batera, Usurbilek sarbide nagusi berri baten premia duela uste du EAJk: “aurreikusi diren eremu berrien beharrak, Artzabal, Ugartondo, Olarriondo, Zaintza... Ez baitira egungo bide-azpiegiturekin asetzen”.

Jarduera ekonomikoa sustatzeko proposamena

EAJren lehentasunen artean ere badira jarduera ekonomikoa bultzatzea eta lanpostu berriak sortzea. “Zapategi eramuz aparte, HAPOak ez du industriarako lur berririk proposatzen datozen urteei begira eta honen aurrean industria, enpresa eta teknolo-

gia parkeen erabilera mistoko eremu bat sortzea proposatzen dugu Luzuriaga parean, N-636 eta GI-11 errepideen artean”.

Lehen sektoreari begira

Jeltzaleek nekazaritza eta abeltzaintza arloko industria berriak baimentzea defenda-

tzen dute. Planak balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintza lurak izendape-nean jasotzen dituen haietan. Halaber arrantzara lotutako industria berriak ere baimentzea erregistratu dute, “tradizio handiko industria izanik, batez ere Aginagan”.

Lursail pribatuetan landa eremuko jarduerak aurrera eramateko beharrezkoak diren pistak eta bideak eraiki ahal izateko baimenak erraztea ere eskatu du Usurbilgo EAJk, eta berdin energia berriztagarriak jartzeko garaian ere.



errigora

errigora.eus

martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Bete ezazu
despentsa
urte guztirako



noa

jarraitu gure sare sozialak



facebook



Instagram



twitter



noa

www.noa.eus



NOA BIDAIAK



Uzbekistan

IRTEERA 2023ko maiatza

Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noa.eus • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria

Energia-kooperatiba bat osatzera doaz

Udalak energia berriztagarrien inguruko hitzaldi bat antolatu zuen iazko udaberrian. Komunitate bat osatzeko planteamendua ekitaldi horretan bertan egin zen. 50 bat lagunek agertu zuten interesa eta iaztik hona talde eragile bat aritu da lanean. Laster batean, komunitate honek kooperatiba izaera hartuko du modu ofizialean. Martxoaren 21erako bilera bat deitu dute eta orduantxe eman go dituzte xehetasun guztiak.

NOAUA! Iazko maiatzean egingo lehen bilkuratik hona, zer nolako ibilbidea osatu duzue?

Alazne Arruti: Udalak ikusi nahi zuen ea herrian boron-daterik ba ote zen horrelako proiektu bat sustatzeko. Lehen bilera hura egin genuen jendearen erantzuna zein izan zitekeen ikusteko. Hainbatek izena eman zuten eta horiekin beste bilera bat egin genuen gaia kokatu, asmoak aztertu eta aurrera begira nola antolatu ginen erabakitzeke.

Goienerrek laguntza eskaini digu prozesu honetan. Ni Goiener kooperatibako langilea naiz baina herritar gisa ere ekimen honetan parte hartzen ari naiz. Saioz saio gai ezberdinak landu ditugu. Hiru lantalde



50 bat lagunek agertu dute interesa orain arte. Taldea irekia da eta herritar gehiagorentzako tokia bada. "Harremanetarako posta elektronikoa badaukagu, info@ebkusurbil.eus, norbaitek idatzi nahiko baligu".

BILERA DEIALDIA

**"Martxoaren 21ean
asteartea, bilera ireki bat
egin go dute arratsaldeko
19:00etan Sutegin.
Interesa duen orok
har dezake parte"**

sortu ditugu. Bat, alderdi juridikoa eta administratiboa lantzeko. Beste bat, proiektuen arlo teknikoaz arduratzeko. Eta hirugarrena, komunikazio-la-

nak bideratzeko. Ia urtebeteke prozesua izan da eta orain berriki hamabosgarren bilera egin dugu. Gaiek eskatu ahala antolatu ditugu bilerak.

Goiener energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumo kooperatiba aritu da prozesu hau dinamizatzen. Zein izan da Goienerrek bete duen papera?

A. B.: Talde eragile bat sortu eta urtebeteke prozesu baten ondoren komunitateari figura juridiko bat ematea, beti ere

taldeak hala erabakiko balu. Hori zen helburua. Horretarako kooperatiben inguruko saioak antolatu ditugu, energia berriztagarriek eskaintzen dituzten aukerak aztertu ditugu, pobrezia energetikoaz jardun dugu... Goienerrek dinamizazio lana egin du baina arlo honetan Elhuyar ere bidelagun izan dugu. Azkeneko saioetan proiektua identifikatzen hasi gara eta komunitatearen bera- ren bideragarritasuna aztertu dugu.

"Ez dugu etxeko kontsumoan bakarrik erreparatuko"

NOAUA! Tankera honetako komunitateetan, etxeko kontsumoarekin kezkatuta dauden herritarrak irudikatzen ditugu. Enpresak, saltokiak edota instituzioak ere izan daitezke egitasmo honen partehartzaileak. Komunitatearen egitasmora batu diren horien profila zein da?

Itxaso Santxez: Nik uste dut indibidualki oso espektro zabaleko jendea hurbildu zai- gula. Enpresen aldetik aldiz,

ez zaizkigu talde asko batu oraingo. Elhuyar eta Alkartasuna Kooperatiba. Batzuk arlo teknikoak heldu zaizki- gu, beste batzuk ezinegonak bultzatuta animatu dira, etxe- ko fakturengatik kezkatuta daudelako... Energia berriz- tagarrien komunitateak ez du etxeko kontsumoan bakarrik erreparatuko, bestelako kezka batzuk ere bultzatu gaituzte partehartzera: pobrezia ener- getikoa, eraginkotasun ener-

getikoa... Adinez ere nahiko ezberdinak gara. Gehienak hel- duak dira, ni naiz gazteena.

Pello Aranburu: Energiak orohar kezkatu egiten gaituela esango nuke. Sorreratik bertatik, kontsumitzen dugun energia berriz- tagarria den ala ez den; ener- gia kantitatearen eta prezioen igoeraren arteko lotura zein den; energia asko behar duen gizartea gaila eta horrek ez lukeela horrela izan behar.. Kezka horiek dira nagusiki.

A.B.: Mugikortasunaz ere dezente hitz egin dugu.

I.S.: Azken batean, denoi era- giten digun gai bat da. Bai- na zaila delakoan edo, beti beste batzuen esku utzi izan dugu. Covid-aren eta Ukrai- nako krisien ondoren ordea, esango nuke herritarrak gero eta gehiago mugitzen hasi gaila eta konturatzen hasi- ta gaudela guk ere eskume- nik izan dezakegula kontu hauetan guztietan.

“Azken urteotan boom handia eman da”

NOAUA! Itxaso, zuk eguzki-instalazio fotovoltaikoak egiten dituen enpresa batean egiten duzu lan. Gero eta gehiago dira horrelako egitasmoen alde egiten duten herritarrek eta enpresak, ezta?

Itxaso Santxez: Azken urteetan boom handia eman da instalazio fotovoltaikoen alorrean. Enpresetan piztu du interesik handiena, diru-laguntza handiak ematen dituztelako. Onura handiak nabaritzen dituzte fakturan. Azken aldian lan pila batekin gabiltza, interesatu asko daudelako.

Itxasok aipatu duen boom hori Goienarren ere nabaritu al da?

Alazne Arruti: 2019tik hona gorakada nabarmen bat nabaritu dugu. Lege aldaketa bat eman zen garai horretan, autokontsumoari lotuta, eta orduantxe hasi zen jendea mugitzen. Azken urtean fakturretan nabaritu dugun gorakadak ere zehazki handia izan du, jendea bide hauek hartzeraz bultzatu duelako.

Instalazio partekatuetarako joera ari da nabarmentzen azken boladan; lehen bakoitzak bere etxerako jartzen zituen, baina orain aukera dago hori banatzeko eta hori paradigma aldaketa handia izan da. Energia komunitateetan ere eredu hau ari da nagusitzen.

Energia Berriztagarrien Komunitatea osatzeko hainbat



Energia berriztagarrien komunitatea osatzeko asmoz, talde eragile bat ari da lanean. Tartean dira gure solaskideak: Alazne Arruti, Itxaso Santxez eta Pello Aranburu. Elkartzen hasi zirenetik hona, Goienarren aholkularitza jaso dute.

ALAZNE ARRUTI

“Instalazio partekatuetarako joera ari da nabarmentzen azken boladan. Energia komunitateetan ere eredu hau ari da nagusitzen”

herritar ari zarete lanean. Martxoaren 21erako bilera deial-

dia egin duzue, arratsaldeko 19:00etan Sutegin batzeko. Zein da bilera honen helburua?

Pello Aranburu: Kooperatiba bat sortzera goaz. Beraz, lehenagotik ere bileretan parte hartu duen jendeari deia luzatuko diogu, kooperatiban parte hartu nahi duten horiek identifikatu eta interesa agertzen dutenen artean kooperatiba legezatzeko. Hori da bileraren

helburua.

A. A.: Azkenaldian hamar bat pertsona aritu gara lanean eta orain arte egindakoaren berri ere emango dugu.

“Bilera irekia da”

Izango da aurreko bileretara agertu ez baina interesa izan dezakeen herritarrik. Sutegira bertaratu daiteke martxoaren 21ean?

A. A.: Bilera irekia da. Aurreko bileretan partehartu ez dutenek ere atea zabaltzeko izango dituzte. Udalaren web orrialdean bada egitasmo honen inguruko informazioa eta harremanetarako posta elektronikoa ere badaukagu, info@ebkusur-bil.eus, norbaitek idatzi nahiko baligu.

Martxoaren 21eko bileraren ondoren, baduzue ekimen zehatzik aurreikusita?

P. A.: Energia Berriztagarrien Komunitateari izaera juridikoa emango dion kooperatibaren sorreran jarriko ditugu indarrak. Baina horretaz gain, kooperatiba honen lehen proiektua zehaztuta daukagu eta horren berri ere emango dugu.

Proiektu horren inguruko zehaztasunik ematerik ba al duzue?

A. A.: Autokontsumo partekatuan oinarritutako proiektu bat izango da eta Udalarekin harremanetan gaude estalki publiko bat baliatu nahi dugulako.

‘NOAUA! Podcasta’ abiarazi dugu noaua.eus web orrialdean

Elkarrizketak plazaratzeko txoko berri bat zabaldu dugu: NOAUA! Podcasta. Audio bidezko edukiak partekatzeko sortu dugu eta dagoeneko lau saio osatu ditugu. Azkenak energia berriztagarrien komunitateko kideekin izandako solasaldia du ardatz.

Mugikorrean edo ordenagailuan entzuteko moduko solasaldiak

Miren Rosekin pantailen erabileraren inguruko elkarrizketa interesgarri bat izan genuen eta hori ere NOAUA! Podcastean aurkituko duzue.

Ilazki Gainza Kalaka kooperatibako ordezkaria eta Aritz

Resines Usurbilgo sexu aholkularitza zerbitzuko kidearen audioak ere topatuko dituzue txoko berri honetan. NOAUA! Podcasta zure mugikorrean, tabletean edota ordenagailuan erreproduzitzeko aukera duzu. Hauxe duzue helbidea: noaua.eus/bereziak/noaua-podcast



Helbide honetan aurkituko duzue: noaua.eus/bereziak/noaua-podcast

EDERTASUNA ZABALDU



Gipuzkoa poesiaz bete nahi dugu eta
zurekin kontatzen dugu hori lortzeko.

MARTXOAREN 15etik 21era

Partekatu edertasuna zure sare sozialetan
eta berehalako mezularitzako aplikazioetan:
poesia, argazkiak, poema irakurketak,
bideo sortzaileak... Irudimena da muga.

#EdertasunaZabaldu #PoesiarenEguna

Poesiaren
Eguna

Martxoak 21

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Lanikidetzak, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA
ORAIN



@GipuzkoaKultura

Igande honetan, Laburbira SuteGIN

Zazpi filmekin bueltan dator 20. ediziora heldu den Laburbira. NOAUA! Kultur Elkartearen eskutik, martxoaren 19an 18:30ean SuteGIN. Filmetako batean, "Erlojupekoa" izenekoan Jontxu Martinez aktore herrikideak parte hartu du. Proiektzio honetan izango dugu gonbidatu gisa, film labor honen zuzendari Leire Egañarekin batera.

"Muskil"

■ Sinopsia: "Ixabel eta Pedro Muskil baserrian bizi diren agure bikotea dira. Ixabelek baserriko lanak egiten pasatzen ditu egunak, Pedrok, aldiz, tabernan. Ixabeli gero eta gehiago kostatzen zaio bizi-modu horrekin jarraitzea eta, gainera, Pedoren tratatu txarrak jasan behar ditu. Egun batean, Luisa, maistra berri gaztea, ondoko baserrira etortzen da bitziera. Ixabel eta Luisaren arteko harremana estutzen doan heinean, Pedoren tratatu txarrak gora egiten dute..."

■ Zuzendaria: Marina Perosanz.

■ Aktoreak: Iñake Irastorza, Jose Ramon Soroiz, Miren Arrieta.

"Olatuen isiltasuna"

■ Sinopsia: "Urtero-urtero Lekeitioko kaleetatik ibilbide berdina egiten du protagonistak zer bait edo nor bait bilatze-



Argazkian, 'Muskil' film laburreko aktoreak: Jose Ramon Soroiz, Iñake Irastorza eta Miren Arrieta.

LABURBIRA

"Zazpi film laburrez osatzen da aurtengo Laburbira. Igandean, SuteGIN ikus ahal izango ditugu 18:30etik aurrera"

ko asmoarekin. Lan honekin, filmaren zuzendariak; Maria Bartolome, Erik Campos eta Fernando Martinek, 2022. edizioako Kameratoia ikus-entzunezkoen rallya irabazi zuten".

■ Zuzendariak: Maria Bartolomé, Erik Campos, Fernando Martín.

"Irrits"

■ Sinopsia: "Izaro eta Clara, 17 urteko neska nerabe bi, begirale lanetan ari dira haurrentzako udalekuetan. Egun berotsu batean, Clarak irrikaz musukatzen du laguna. Iza-

ro, grinak itsututa, noraezean dabil gertatu zaiona kudeatu nahian, baina prest dago Clari jarraitzeko, hark nahi duen eremura".

■ Zuzendaria: Maider Oleaga.

■ Aktoreak: Erika Olaizola, Angela Echaniz Oyarzabal, Izaro Nieto, Xabier Elizalde.

"Erlojupekoa"

■ Sinopsia: "Astronautaz jantzitako rider bati enkargu bat jasotzeko mezua iristen zaio. Paketea motxilan, riderrak esleitutako misioa hasten du bideojoko baten pertsonaia baltz bezala ibilbidean topatzen dituen oztopoak ahal bezala saihestuz. Lortuko al du bere misioa betetzea erlojupekoa amaitu baino lehen?"

■ Zuzendaria: Leire Egaña.

■ Aktoreak: Lore Nekane Billebeitia, Irene Caminos, Jon-txu Martinez, Ruben Markina.

"Hitzak"

■ Sinopsia: "1966, Ipar Euskal Herriko Bizkarsoro izeneko herrixkan, lau neska gaztek lurperaturik diren hitzak atzetan dituzte. Michellek, 21 urteko gazteak, ez ditu ulertzen. Familian aspaldian galdu zuten hizkuntzan idatziak dira.

■ Zuzendaria: Josu Martinez.

■ Aktoreak: Lea Campistron, Arantxa Hirigoien, Yaiza Arregi, Kattalin Bidart, Mikela Atxoarena, Juanes Ustaritz, Titika Rekalt.

"Asko falta da?"

■ Sinopsia: "Neska gazte bat asteburu pasa doa lagun talde berri batekin. Egun bate-tik bestera, gau bakar batean, dena aldatuko da".

■ Zuzendaria: Ane Cuesta.

■ Aktoreak: Maria Redondo, Gaizka Sarasua, Iholdi Beristain, Beñat Iturbe, Unai Arana.

"Koadro goriari heldu"

■ Sinopsia: "Herminia, 91 urteko andre bakartia, egoitza batean bizi da. Ez du inorekin harremanik, zentroko langile bat harengana hurbiltzen saiatzen den arte".

■ Zuzendaria: Iulen Arana.

■ Aktoreak: Itziar Aizpuru, Horacio Ubiria, Olatz Beobide, Maitane Aldako, Luis Fernández, Puri Urretabizkaia.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil
URDAINTZI S.L. Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Martxoaren 23an mobilizazioak antolatu dituzte hezkuntza euskaldun baten alde

Hezkuntza euskaldun baten eskubidearekin bat egiten duten eragile eta hezkuntza komunitateko norbanako guztiei martxoaren 23an Bilbon, Gasteizen, Donostian eta Iruñean izango diren mobilizazioetan parte hartzeko deia luzatu die Gazte Euskaltzaleen Sareak eta Unibertsitateetako euskara taldeek.

Ikasketak jarraitzeko garaian, “trabaz beteriko bidearekin” topo egiten dutela salatu nahi dute ekimen honen antolatzaileek. Gazteak bigarren mailako herritarrek badira, gazte eta ikasle izanda hori bihurtu egiten dela diote. Ikasketak euskaraz egitea oztopoz beteriko bidea da, eskubide urraketa etengabeak pairatzen dituztelako. Horregatik, aspalitik salatzen dabilzan egoera honek, hezkuntza eremua aktibatu eta elkarlanean antolatzera eraman dituela jakinarazi dute.

“Hezkuntza prozesua ezin dugu %100ean euskaraz gauzatu”

IKAMA ikasle antolakundeko



Ikasketak euskaraz egitea, oztopoz beteriko bidea dela dio Gazte Euskaltzaleen Sareak. Eskubide urraketa etengabeak pairatzen dituztelako.

MARTXOAREN 23KO MOBILIZAZIOETAN

“Hezkuntza prozesua %100an berrmatuko duen irakasle eta langile euskaldunen kontratazioa eskatuko dute”

kideek igorri diguten prentsa-oharrak deigarria den datu bat dakar: “euskaraz ikasten dugula esaten den arren, hezkuntza prozesu hori ezin

dugu sekula %100an euskaraz gauzatu: irakasle euskaldunen falta, euskarazko zerbitzu eza, euskaratu gabeko material didaktikoaren etengabea erabilerara, euskarazko ikasketen eskaintza eza... Urtez urte pairatzen ditugun eskubide urraketa dira”, gaineratu dute. Agerikoa dela hezkuntza eredu honek ez duela euskararen jakintza eta erabileraren arteko isilu gisa funtzionatzen. Hezkuntza eredu honek ez

duela “gure belaunaldia euskalduntzeko gaitasunik” salatu dute. Egoerarekin kezkatuta, eta azken Gaztealdian adierazi bezala, ez daude heziketa prozesuan ezinbestekoa den arlo horretan besoak gurutzatuta gelditzeko prest.

Aldarrikapen nagusiak

Hezkuntza euskaldun bat bermatu dadin hurrengo aldarrikapenak proposatu dituzte:

■ Hezkuntza prozesua %100an berrmatuko duen irakasle eta langile euskaldunen kontratazioa.

■ Erabiltzen diren eduki guztiak euskaratuta egotea.

■ Hezkuntza eremua euskaldundu bat, paisaia linguistikoa euskaldun osoa ahalbidetuko duena: eremu fisikoan, zerbitzu zein langilei dagokienez eta eremu digital eta didaktikoan.

■ Ez da bakarrik euskaraz egotea, baizik eta Euskal Herrira egokitutako hezkuntza eredu eskaintzea. Euskal errealitateari egokitutako hezkuntza prozesu bat.

Beste bi hitzordu, zaintza eredu berrirantz

Zaintza eredu propioa eraikitzeko bidean, beste bi hitzordu iragarri dituzte alor honetan lankidetzan diharduten udal, eragile eta herritarrek. Batetik, hilero antolatzen ari diren hitzaldia hilaren 23an. Astebete beranduago, martxoaren 29an 18:00etan Artzabalen, azken bi urteotan landutako eredu berria ezartzeko urratsen aurkezpena. “Eredu berri horretara jauzia egiteko garaia iritsi da, eta horretarako hartu beharreko neurriak bide orri batean jaso dituzte”. Hauexek aurkeztuko dituzte

hilabete amaierako saio irekian. Bide orria bera aurrean martxan jarri asmo dute.

Gogoan izan, orain arte, 2021ean egungo ereduari buruzko hausnarketa eta diagnosi kolektiboa bideratu zuten alor honetan inplikatuak dauden zaintza jaso eta ematen dituztenekin, erakundeekin, eragileekin... “Gaur egungo eredu birformulatu, eta zaintza behar duten pertsonen desioak errespetatu eta bere bizi-proiektua gauzatzen jarraitu ahal izatea da eredu

berriaren helburua. Hau da, pertsona ardatz duen arreta da eredu berriaren norabidea”. Iaz lanketa honen bigarren fasean murgildu ziren. Zaintza eredu eraldatzeko lan taldeak sortu zituzten kolektibo hauek kide bilakatuta: erabiltzaileak, gizarte zerbitzuak, komunitatea, zaintza zerbitzuak eta talde estrategikoa. “Zaintza eraldatzeko ekarpenak egin zituzten taldeok, nork bere eremutik, eta hala, eredu berrira trantsizioa egiteko neurriak adostu eta bide orri batean jaso zituzten”.

Martxoak 23, osteguna

■ 18:00 Zaintzari lotutako hitzaldi zikloa: “Ekofeministotik zaintza ekosistema berriak eraikitzen”.

■ Hizlariak: Mirene Begiristain, Marta Barba.

Martxoak 29, asteazkena

■ 18:00 Zaintza eredu berria ezartzeko urratsak aurkezteko saio irekia Artzabalen.

Antolatzaileak:

■ Herritar eta eragile talde bat eta Usurbilgo Udala.

Nepalgo emakumeak laguntzeko xedez, Elkartasun Astea antolatu dute LH6 mailako ikasleek

LH 6. mailako ikasleek garatuak dauden eta garabidean diren herrialdeetako bizi-baldintzak aztertu dituzte azken hiruhilekoan. Behaketa lana soilik ez, ekarpenen bat ere egin nahi dute eta horregatik Nepalaldea gobernu kanpoko erakundearekin hartuemanetan jarri dira. “Nepalgo neskato eta emakumeen artean aldaketa bat eragin nahi dugu. Ikasteko aukera emanez, emakumeak lan-munduan sartzeko aukera handiagoa du, erabakitzeko ahalmen handiagoa eta baliabide gehiago familia nahiz komunitatea mantentzeko”.

Martxoak 13-16

Astelehenetik ostegunera:

■ 16:20-16:40 Denda solidarioa Agerialdeko frontoi estalian:



Ostiral honetarako Korrika solidarioa antolatu dute. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da txikien lasterketa eta 18:30ean gazte zein helduena.

martxoaren 21ean zozketatuko duten bertako produktuez hornituriko otarrerako errifak 2 eurotan (ikastolako idazkari-tzan ere salgai) eta lasterketarako dortsalak 5 eurotan salgai (0000 dortsala borondatearen truke), baita motxilak, karte-

rak, egutegiak...

Martxoak 17, ostirala

Korrika solidarioa frontoitik:

■ 18:00 Txikiak. Ibilbidea: frontoia, Bordatxoko biribilgunea, Zubiaurrenea, Askatasuna plaza, frontoia.

■ 18:30 Gazteak eta helduak. Ibilbidea: frontoia, Bordatxoko biribilgunea, Puntapax kalea Aranerreka arte, Errekatziki kalea Zubiaurrenearen lotunera arte, Askatasuna plaza, frontoia.

Oinez nahiz korrika egin osatu ahalko dira ibilbideok. Baina lasterketa ez da lehiakorra izango.

■ Denda solidarioa frontoian jarriko dute. Bertan, besteak beste, aste osoan zehar salgai izango dituzten produktuekin batera, ikasleek sukaldaturiko pintxoak (1,50 euro) eta iturriko ura dastatzeko aukera.

Informazio gehiago:

nepaldala.org

Antolatzailea:

Udarregi ikastola.

Eragozpenak ikusgarri egin eta ezabatzeko lanean

LH 5 eta 6 mailetan Eskola Kirolean parte hartzen ari diren gaztetxoek haien ohiko jarduean etenaldi bat egin zuten duela bi asteburu. “Gaur LH 5 eta 6ko eskola kiroleko haurrekin kirol egokituko sentsibilizazio saioa izan dugu”, berri eman diote NOAUA!ri ekimen honen sustatzaileek.

Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioko kideekin hainbat jardueretan parte hartzeko aukera izan zuten gaztetxo hauek. Aipatu federazioak “desgaitasuna duten pertsonen kirola egiteko aukera bermatu nahi die, bidean dauden oztipoak ikusaraziz eta ezabatuz, kirol praktika eta kirolaren bitarteko inklusio soziala sustatuz”. Horretara dator, abian duten kirolbarrerak.eus kanpaina.



Sentsibilizazio saio berezia izan zuten hilabete hasieran, LH 5. eta 6. mailetako Eskola Kiroleko parte hartzaileak.

“Kirola egin nahi duten pertsonen eguneroko bizitzan aurkitu ditzaketen oztipoak desagerrarazi nahi ditu”. Horretarako herritarren laguntza jaso nahi dute, “dagoneneko kirol barrerak kendu dituzten espazioak edota oraindik hobetu beharra daukaten espazio haiek ikusa-

razteko”.

Denetariko barrerez ari dira: barrera mentalez, fisikoez, prestakuntzari nahiz kirola hautatzeari lotutakoez, egokitutako zentroak aurkitzeaz, komunikazioaz, barrera ekonomikoaz, garraio publikoaren erabileraz, sostenguaz...

Kirol Astea datozen porretan

Bueltan dator Pagazpe Pilotaren Elkartek, Usurbil Kirol Elkartek eta Usurbil Futbol Taldeak lankidetzan antolatutako ekimen astea LH 1 eta 6 maila artean diren gaztetxoentzat. “Kaixo! Aurten ere Usurbilgo hainbat kirol-elkarte bildu gara aste santuko Kirol Astea antolatzeko, herriko haurrek kirolaz goza dezaten”. Apirilaren 11tik 14ra izango da Kirol Astea. Goiz partean egingo dituzte jarduerak, 10:00-13:00 artean. Parte hartu nahi dutenek, izena aurrez bideratu behar dute, martxoaren 31 baino lehen, eta dagokion ordainketa ere egin behar da. Izena emateko esteka honako hau da:

<https://labur.eus/n0oTH>

Orquesta Reusonica, irudimena eta ingurumen kontzientziazioa uztartzen dituen musika taldea

Orquesta Reusonicak tailerra eta kontzertua eskainiko ditu Zumarte Musika Eskolak antolatutako Soinurbil astearen baitan. Martxoaren 18an izango da hori. Berrerabilitako material eta objektuekin musika egiten duen talde katalana da Usurbilen izango dena. Tailerra goizeko 11:00etan izango da musika eskolan, eta kontzertua, berriz, frontoian arratsaldeko 19:00etan. Taldeko partaide den Rocco Papiarekin izan da NOAUA! ikuskizunaren non-dik-norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Hondakintzat hartzen ditugun objektuak aprobetxatuta musika egiten duzue. Nola bururatu zitzaizuen ideia?

Rocco Papia: Hirukotea bide ezberdinetatik eratorritakoa da. Xavi eta Antoniok aspalditik lan egiten dute egunerokotasunean erabiltzen ditugun objektuak eraldatu eta horiekin musika egiten. Irudimena lantzeko egiten duten ariketa bat da. Nik, berriz, proiektuan parte hartu dut ingurumen kontzientziazioaren gaiagatik. Haurrekin lan egiten dut, eta batez ere itsasoko hondakinak birziklatzen. Oso kontzientziazioa nago itsasoaren egoerarekin. Hondartzetan hondakinak biltzen ditut askotan, eta



“Hondartzetan hondakinak biltzen ditut askotan”, adierazi digu Rocco Papia Orquesta Reusonicako kideak. “Horrekin instrumentuak egin eta erabilpena ematea ederra iruditzen zait”. Larunbatean arituko dira frontoian, 19:00etan.

ORQUESTA REUSONICA

“Objektuek eta materialek guk uste baino bizitza luzeagoa dute, eta uste baino erabilera gehiago”

horrekin instrumentuak egin eta erabilpena ematea ederra iruditzen zait auzi horri modu indibidual batean heltzeko. Taldearen helburua ez da birziklatutako elementuekin instrumentuak egitea bakarrik,

musika ona egitea da asmoa. Irudimena eta ingurumen kontzientziazioa uztartuta musika ona egitea da helburua.

Musika egiteaz gain, kontzientziazio lana ere egin nahi duzue?

Idea bikoitza du. Alde bate-tik, musika edonon dagoela erakutsi nahi dugu eta edozein material musika tresna ederra izan daitekeela. Zentzu horretan, ez dago ezberdintasunik instrumentu “tradizional” eta berrerabilitako materialarekin

egindako baten artean. Musika instrumentuak sortu baino askoz ere lehenago sortu zen musika, eta beraz, edozerekin egin daiteke. Bestalde, hausnarketa bultzatzeko aitzakia ederra da. Ia konturatu ere ez gara egiten egunerokotasunean erabiltzen ditugun objektuak zein azkar bilakatzen diren hondakin. Segituan iruditzen zaigu bizitza erabilgarria amaitu egiten zaiela, baina objektu eta materialek guk uste baino bizitza luzeagoa dute eta pentsatu baino erabilera gehiago.

Larunbat goizekoa, “gaztetxoei eta familiei zuzendutako tailerra izango da”

NOAUA! Kontzertua larunbat arratsaldean izango da frontoian baina goizean tailer bat eskainiko duzue Zumarten, ezta?

Rocco Papia: Haur eta familiei

zuzendutako tailerra izango da. Euren artean musikarekin lotutako jokoak egin beharko dituzte. Ondoren, eurek etxetik ekarritako materialarekin instrumentuak egingo dituzte:

plastikozko botilak, latak... Behin instrumentuak eginda, kontzertu bat prestatuko dugu denon artean instrumentu berriak jotzeko. Normalean oso gauza politak eta irudimen bi-

zikoak ateratzen dira. Haur askok instrumentu berriak asmatzen dituzte eta nik, adibidez, umeez asmatutako bi instrumentu erabiltzen ditut zuzeneko ikuskizuneari.

“Tailerretan oso ondo pasatzen du jendeak”

NOAUA! Arratsaldean kontzertua eskainiko duzue. Materiala birziklatuz eginiko instrumentuak erabiliko dituzue?

Rocco Papia: Kontzerturako etxetik eramandako instrumentuak erabiliko ditugu. Goizean egingo dugun tailerrekoen antzekoak izango dira, baina lanketa gehiago dute. Materiala birziklatuz egindakoak dira eta beste inon ikusi gabeak. Benetako instrumentu bakarra gitarra bat da. Nik jotzen dut gitarra eta 7 soka ditu, gitarra normal batek baino bat gehiago. Gainontzeko instrumentu guztiak guk asmatutakoak dira. Nik surfstur izeneko instrumentu bat asmatu dut Irango ‘santur’ izeneko instrumentu baten antzekoa baita, baina surf taula batekin egindakoa da. Xavik bizikletaren gurpil bat jotzen du flauta bat balitz bezala eta Antoniok kanikak jotzen ditu. Gure asmoa



“Jendeak esaten digu gurea ez dela ikuskizun berezi bat bakarrik, baizik eta musika kontzertu on eta ikusgarri bat”.

ORQUESTA REUSONICA

“Kontzertuetan begiak itxiz gero, askok ez lukete jakingo objektu birtziklatuak jotzen ditugunik”

ez da instrumentuak imitatzea, baizik eta berriak proposatzea

materialak eskatzen duen moduan. Nik xilofonoa jotzen dut plastikozko botilez egindakoa. Botilofonoa dela esan genezake. Botilaren barruan sortzen den presioaren ondorioz egiten du musika, ez du xilofonoarekin zerikusirik.

Ikuskizun eta tailer hau beste leku batzuetan ere egin du-

zue? Zer-nolako harrera izan dute?

Jendea erabat txundituta gertatzen da. Tailerretan oso ondo pasatzen du jendeak. Tailerra egin baino lehen hondakintzat hartzen zituzten objektu horiei balioa eman eta etxean gordetzen dute altxor bat balitz bezala. Hori da guretzat erantzunik onena ingurumenaren zainketaren ikuspuntutik. Kontzertuetan esaten digute begiak itxiz gero, ez luketela jakingo objektuak jotzen ditugunik, baizik eta benetako instrumentuak. Flauta bat iruditzen zaiena aulki bat izan daiteke, baxua dirudiena surfeko taula bat eta bateria bat, berriz, plastikoz eta bestelako materialez osatutako pilaketa bat. Jendeak esaten digu gurea ez dela ikuskizun berezi bat bakarrik, baizik eta musika kontzertu on eta ikusgarri bat. Gure asmoa ere hori da, azken finean.

Hirusta Trioren kontzertuak jende asko erakarri zuen

Hirusta Trio taldea Sutegin izan zen aurreko larunbatean “Matrioshka baten soinu geografía” ikuskizuna eskaintzen. Hainbat herritar hurbildu ziren ahotsak, pianoak, poesiak eta ikus-entzunezko edukiak biltzen dituen emeraldia ikustera.

Musikaren eta lirikaren bitartez kontatzeko asko duten hiru emakumek osatzen

dute taldea eta gai edo ardatz bera lantzen dute euren ikuskizunetan: emakumea. Garbiñe Abendaño abeslari sopranoak, Margarita Lorenzo de Reizabal piano-jole eta ikus-entzunezkoen arduradunak eta Julene Zenikazelaia errexitatzaile eta gidoilariak osatutako taldeak txundituta utzi zituen Sutegira bertaratuak.



Ardatz bera lantzen dute euren ikuskizunetan: emakumea.

ARANKA BERRIKUNTZAK
 Fatxaden estaldurak · Estalkien berriztatzeak
 Barruko berrikuntzak · Gremioen koordinaketa
 Igeltseritza orokorra
722 297 867 USURBIL

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
 ANTON BERNAL RUIZ DE OÑA
 EKAITZ GARMENDIA MERINO
 Kale Nagusia 10, 1.C4 RPS: 19/22 20170
 Tlf 943 37 08 78 USURBIL

Uraitz, s.l.
 Igeltseritza Orokorra

693 059 392
 uraitz@uraitz.com USURBIL

“Buruntzaldean ere, lehen indarra izatetik inoiz baino gertuago gaude”

Hala jakinarazi du Buruntzaldeko LAB sindikatuak. Martxoaren lehenean Buruntza-Goierriko LABeko ordezkarien eskualdeko batzarra egin zuten Legorretan. Hurrengo hilabeteotako plangintzan jasotako gaiak kokatu eta “hauteskunde sindikalen epealdi trinkoko urte amaierako datuak partekatzeke probestu genuen”.

LAB-etik berri eman duteenez, %4,58an gehitu du ordezkari-tza eremu honetan. “192 delegatu eta %31,89ko ordezkari-tza izatetik, 225 delegatu eta %36,47ko ordezkari-tza izatera igaro gara”. Babes gehien duen bigarren sindikatua da Buruntzaldean, baina ohartarazi duenez, “lehen indarra izatetik inoiz baino gertuago gaude”. Hain zuzen, nagusitasuna duen lehen sindikatuak duen babesarekiko “alde oso txikia” dela diote, %1 baino gutxiagokoa. “Geroz eta langile gehiago dira gure ekintza soziosindikalak erakarritza gurekin bat egiten dutenak, eta hori argi gertatzen da afiliazioan ere. Azken lau urteetan ia 6.000 langile gehiago dira LABen komunitatearen parte, horietatik gainera %43,58a emakumeak”. Azken lau urteetan %13,97ko igoera



“LAB-en esanetan, “delegatu kopuru eta portzentaian hazten den sindikatu bakarra gara”.

BURUNTZALDEKO LAB

“Azken lau urteetan ia 6.000 langile gehiago dira LABen komunitatearen parte, horietatik gainera %43,58a emakumeak”

izan dugu, 47.742 afiliatu izatera iritsiz”.

“Zuekin bagara!”

Esparrua zertxobait gehiago zabalduz gero, Buruntza-Goierri eremu osoa aintzakotzat hartuta, “LAB sindikatuaren emaitzak oso onak izaten ari direla azpimarratu nahi dugu. 2022ko abenduaren 31n, duela lau urteko epealdi trinkoko emaitzekin alderatuta, 493 delegaturekin %30,36ko ordezkari-tza edukitzetik, 556 delegatu

eta %38,64ko ordezkari-tza izatera igaro gara. %8ko igoera izan dugu. LAB da delegatu kopuru eta portzentaian hazten den sindikatu bakarra. Une honetan, lehen indarrarengandik genuen %15eko tarte hori %1 soilik izatera igaro da. Beraz, lehen indarra izatetik inoiz baino gertuago gaude”.

Datuok eskutan, “argi dago beraz, geroz eta langile gehiagok, LABen proiektuarekin eta borroka egiteko moldeekin bat egiten dutela. LABetik, bai beren bozka bidez babesa eman diguten langile guztiei, zein hautagai izateko urratsa eman duten guztiei eskertu nahi diegu. Euskal Herri osoko langile guztientzako sindikalismo independentista eraginkorra garatzeko gure konpromezuari eusten diogu. Zuekin bagara!”.

Etxeko arretan lanean ari diren entzako ikastaroa

Usurbilgo Udalak etxeko arretan lanean aritzen diren entzako formakuntza saioak eskainiko ditu, pertsona ardatz duen zaintza ereduak sakontzeko trebakuntza jaso dezaten.

Zaintzaileek ikastaroan parte hartu ahal izateko baliabideak eskainiko zaizkie familiei, eta horren berri emateko, udalak gutunak bidaliko ditu datozen egunetan.

Apirila eta uztaila bitartean, bi orduko 13 saio

Udalak Nazaret lanbide heziketarekin elkarlanean eskainiko ditu ikastarook: apirila eta uztaila bitartean, profesionalen formakuntzarako bi orduko 13 saio eskainiko zaizkie etxeko arretan aritzen diren langileei. “Saiook erabat doakoak izango dira, eta saioak egokitzen diren

orduak euren lanorduetan badira, beste profesional batek ordezkatzeko aukera emango zaie”, udal iturriek aditzera eman duenez.

Izen-ematea, Gizarte Zerbitzuetan

Interesa dutenek, udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman dezakete izena ikastaroan parte hartzeko.

“Usurbildik ari gara!” eguna

Gazte antolakundearen hainmargarren urtemugaren harira, “herriko gazteok elkartu eta gozatzeko aukera izango dugu martxoaren 18an”. Egun osorako ekimenak iragarri ditu Ernaik:

Martxoak 18, larunbata

- 10:00 Tailerra Gazte Lokalean: “Gazteon osasun mentala: “Heldu diezaiegun harremanei”.
- 14:00 Paellada frontoian. Izen-ematea Aitzagan edo Ernairen sare sozialetan.
- 15:00 Mural margoketa frontoian.
- 20:30 Gazte argazkia Aitzagan.
- Ondoren, ekitaldia eta Viafara Aitzagan.
- Antolatzailea: Ernai Usurbil.

Arantzazurako irteeran izena emateko garaia

Apirilaren 6rako antolatu du herritar talde batek, tradizio luzeko txangoa; Usurbildik Arantzazura oinez joateko ibilaldia. Antolakuntzak ohartarazi duenez, apirilaren 3ra arte eman ahalko da izena 662 039 829 telefono zenbakian. Bide bereetik jaso ahalko dira argibide gehiago. Giro ona ziurtatua izango dutela ohartarazi dute. Apirilaren 6an goizeko 5:00ean abiatuko dira frontoitik Arantzazura oinez. Ordu laurden lehenago biltzeko deia egin dute bertan, aldatzeko arropa eta beharrezkoa autobusean uzteko. Bidean zehar hainbat geldialdi egingo dituzte, hainbatetako egin, bazkaldu nahiz arropa aldatzeko. Askaria Arantzazun eta handik Usurbilera autobusez itzuliko dira.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Alokairuan

Usurbilen, kaxkoan edo auzoetan mutil batentzako pisu bila nabil. 622925562

Ekainaren 26tik abuztuaren 26ra bizitzeko moduan dagoen etxe bat alokatu nahiko nuke. Familiarteko baten egonaldirako litzateke. 636711514

Usurbilen 2 edo 3 logelako etxea alokatu nahiko genukeen aita eta 13 urteko semea gara. 683 548 749.

Logela bila nabil Usurbil, Aginaga aldean. 643 830 772 (Luis).

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume batentzako. 618032966

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Garaje itxia salgai herri sarre-ran. 646 601 947. 18:00etatik aurrera deitu.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 70 metro koadro ditu eta sarre-rako atea handia dauka materialak erraz sartu eta ateratzeko. 652765583

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629 460 966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Lan egin nahi duzu zerbitzari bezala 40 orduko kontratu batekin? Animatu eta deitu hona: 680483164

Batxilergoko lehen mailako

ikasle bati euskaraz matematikako klase partikularrak emango dizkion pertsona baten bila gabilta. 608201745

Klase partikularrak emateko prest dauden zerrrenda osatzen ari da Udarregi Ikastola. 943 36 12 16.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Zerbitzariak behar dira Aginaga sagardotegian, urte osoan zehar asteburuetan lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jabetxean. 666 671 444

Lan eskaerak

Emakume bat, interna bezala lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen 602586014

Orduka edo jornada erdiz etxeko garbiketarako egiten ditudan 50 urteko emakume bat naiz. 643 576 129.

Pertsona helduak zaintzen edo etxeko lanak egiteko lan bila dabilen neska euskaldun bat naiz. 626 604 527

Haurrak zaintzeko eta ingelesko klaseak emateko prest dagoen neska euskaldun gaztea. 697 46 55 55 (Olatz)

Kurtsoan zehar arratsalde zaurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magisteritzan graduatua eta esperientziaduna. 679 219 805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. Harremanetarako: 688 645 491 (Nahia)

BESTELAKOAK

Sigma markako josteko makina elektrikoa salgai. Harremanetarako: 671 916 587.

Erloju digital bat aurkitu dugu Agerialdeko patiorako sarreran, Arratzain bideko espaloian. Erlojua beltza da eta pausoak neurtzen dituen horietakoa da. Galdutuenak Udaltzaingoa galdetu, bertan utzi dugu.

Abenduaren 28an Gabonetako Haur Parketik bueltan jantzita genuen zapatiletako bat (Adidas markakoa, beltza) beste norbaitena dela jabetu gara. Gure zapatiletako bat beste batek jantzita eraman zuen. Inor honetaz jabetu bada deitu: 687 779 669.

Futbol partidak**Martxoak 18, larunbata****Harane futbol zelaian:**

■ 10:00 Infantil neskak:

-Usurbil FT A

-Goierri Gorri FK A

-Usurbil FT B

-Intxaurdi KE A

■ 11:30 Kadete preferenteak:

Usurbil FT-Arrasate CD

■ 15:30 Jubenilak:

Usurbil FT B- Dunboa

■ 17:45 Erregionalak:

Usurbil FT B- Ostadar B

Martxoak 18, larunbata**Kanpoan:**

■ 15:30 Preferente neskak, Zestoako Iraetan:

Zestoa KB-Usurbil FT

■ 16:30 Preferente mutilak, Hondarribian:

-Hondarribia FE

-Usurbil FT

Futbol partidak**Martxoak 19, igandea****Harane futbol zelaian:**

■ 10:00 Kadete neskak:

-Usurbil FT

-Amaika Bat KE

■ 12:00 Futbol eskola.

Martxoak 19, igandea**Kanpoan:**

■ 10:30 Kadeteak,

Donostiako Berion:

-Antigua Luberrri KE B

-Usurbil FT B

■ 15:30 Jubenilak, Irungo

San José Obreron:

-San Marcial CD C

-Usurbil FT

■ 17:00 Infantil mutilak,

Donostiako Herreran:

-Kostkas KE A

-Usurbil FT



Zorionak lera! Martxoaren 11n, 15 urte!!! Ze azkar, zenbat gauza eta zenbat bizipen! Ze ondo ospatu ditugun! Datorren urtean gehiago. Jarraitu zaren bezalakoa izaten. Askok asko matte zaittugu, guretzako lehenengoa beti!!! Muxu asko asko familia osoaren partez.

Heriotzak**Marisol****Bengoetxea****Salsamendi****Martxoaren**

9an hil zen,

76 urterekin.

**Goardiako farmaziak**

Osteguna 16 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 17 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 18 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 20 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 21 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 22 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Osteguna 23 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 24 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 25 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 26 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda martxoa

17 ostirala

- **Sagarrondotik Sagardora** ikastaroa 15:30-18:30 Potxoenean. "Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak", Aitor Etxeandia adituarekin.
- **Nepalgo emakumeak laguntzeko lasterketa solidarioa.** 18:00etan frontoitik.

18 larunbata

- **"Usurbildik ari gara!"** eguna. Antolatzailea: Ernai Usurbil. Ikus 20. orrialdea.
- **19. Soinurbil: Orquesta Reusonicaren tailerra eta kontzertua** 11:00 Musika Eskolan. 19:00 Frontoian.

19 igandea

- **"2. Gure bazterrak ezagutzen"** Kalezarren. 9:30 Udarregiko goiko frontoitik. 12:30ak aldera hamaiketako Araneke Kalexarko auzo-elkarteko lokalean.
- **20. Laburbira.** 18:30ean Sutegin, proiektzioaren ondoren solasaldia.

'Gure bazterrak ezagutzen', igande honetan Kalezarren

Kalezar inguruetatik barrena irteeratzeko bat antolatu du bertako auzo elkarteak. Ibilaldiaren ondoren hamaiketako egingo dute. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute aldez aurretik.

Martxoak 19, igandea

- 9:30 Udarregiko goiko frontoitik.
- 12:30ak aldera hamaiketako eskainiko da Araneke Kalexarko auzo-elkarteko lokalean.
- Zehaztasunak: "Aranerreka eta Kalezar inguruan mendi ibilbidea egingo dugu mapa hartuta, familia giroan, goiz pasa. Eraman beharrekoak: mendiko oinetakoak, ura, arkatza edo boligrafoa, iparrorratza".



Udarregiko goiko frontoitik abiatuko da ibilaldia, goizeko 9:30ean.

- Izen-ematea: usurbilkultura.eus
- Izena emateko azken eguna: martxoak 16. Izena ematea beharrezkoa da hamaiketako antolatzeke.
- Antolatzailea: Belmonte Auzo Elkartea.

19. Soinurbil: Zumarteko ikasleen kontzertua

Zumarteko talde instrumental desberdinek kontzertua eskainiko dute eta Orbeli Dantza Taldeko kideak ere bertan izango dira emanaldian parte hartzen.

- Martxoak 16 osteguna. 18:30ean Aginagako Eliza Zaharrean.

Laburbira film laburren proiektzioa

Hauek dira aurtengoan ikusi ahalko diren filmak: *Muskil*, *Olatuen isiltasuna*, *Irrits*, *Erlojupekoa*, *Hitzak*, *Asko falta da?*, *Koadro goriari heldu*.

- Martxoak 19 igandea, 18:30ean Sutegin. Ondoren, solasaldia.

Datozenak

Nerea Zinkunegiren erakusketa Txokoargin

Nerea Zinkunegik margolanek osaturiko erakusketa bat topatuko duzue Txokoaldeko Txokoargi elkartearen.

- Martxoak 10-31 (astelehenetik ostiralerara, 10:00-12:00/17:00-19:00, astearte arratsaldea izan ezik), Txokoargin.

Victoria Chernenkoren erakusketa Artzabalen

Victoria Chernenko ukrainarraren margolanek edertzen dute Artzabal jatetxe-ko paretak. Arte ederretako irakaslea, akuarela, oleoa, akrilikoa eta beste teknika batzuk baliatzen ditu. Hilaren amaieran amaituko da erakusketa.

"Ekofeminismotik zaintza ekosistema berriak eraikitzen" hitzaldia Potxoenean

Usurbilgo Udalak antolatu duen hitzaldi zikloaren baitan, Mirene Begiristain eta Marta Barba arituko dira solasean Potxoenean.

- Martxoak 23 osteguna, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

Usurbil Döner
Kebab
USURBIL
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK

Iñaki
Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA •
ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
943 53 72 38
628 45 78 39 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com
KALE NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Apirilak 2, igandea

IRATI

Filmaren
emanaldia

Ordua: 19:00.

Non: Sutegiko auditorioan

Nori zuzendua: helduei

sarrerak: aldezturik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman edo Noauako egoitzan.
Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUako egoitzan.

noaua



Usurbilgo Udalak

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

EUSKADIKO
ITUN
BERDEA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Elena Arzak, Chef.
3 Michelin izar, 2012ko Munduko
Emakume Chef Onena.

Betidanik, beste inork baino gehiago irabazi diogu urari.
Baina inoiz ez dugu izan dena galtzeko orain dugun arriskua.

EZ DAGO URA BAINO INDARTSUAGORIK

www.indartsdagoak.eus

URDAIRA

Sagardotegia

AGINAGA
943 37 26 91

astelehenak itxita



OTSUA-ENEA

SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 7ra
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
lgande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baseria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita


Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



SAIZAR

Sagardotegia

www.sidrassaizar.com



943 37 39 95

Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako sagarra

Tel: 943 365 031

Santuenaea

